

# Diskoak

IKER BARANDIARAN

## Disco musika berrasmatzeko irudimena eta kemena



**Anai-arrebak.**  
Anai-arrebak.  
Autoekoizpena.  
Iraupena: 13'48".  
5 euro.

NAIZROXAREN errautsetatik bueltan datoz pasaiatarrak eta koordinadaz erabat aldatuta. Ez beraiek ezta gu ere, ezingo gara musika honekin geldirik egon. Sintetizadore, aurre-grabatu, gitarra eta bateria aldean, neska eta mutil ahotsarekin musika discoa berrasmatu eta berpiztu dute. Gutun-azal sorpresa honen barruan euskaraz abestutako bost kanta aurki ditzakegu, hainbat estilo uztartuz (funky, soul, rock, surf, garage...); vintage ukitu

nabarmeneko bost kanta, etengabe jaira eta dantzara gonbidatzen dutenak. Ez hori bakarrik, partaideei ezinezkoa zaie ezkutatzea nondik datozen eta, arrazoi horregatik, kantek indar handia dute barrenean. Kutsakorrek dira, irudimentsuak eta atzera begiratzerakoan onena gaur egunera ekartzen dakite. Gutun-azal sorpresa batean aurkitzeko moduko oparitzarra.

[www.myspace.com/anaiarrebak](http://www.myspace.com/anaiarrebak)

### Matxet - Anai-arrebak

## «Gu ez gara indieak. Ez dugu The Smiths entzuten»

Zuen gaztaroko talde eta estetika kitsch-a errebindikatzen dituzue...

Bai, estetika hori gustuko dugu, eta 1980ko hamarkadako filmek txoratzen gaituzte. Seguru horiek guztiak eragin digutela.

Disco musika ez al du zuetaz gain inork oroitzen?

Bai. Mutatzen joan da new wave, dance-rock, post-punk-era, baina talde haien esentzia mantentzen da oraindik ere. Horiek guztiak disco eboluzionatua dira.

Askotan egingo dizueten galdera: zuena talde serioa al da?

Bai, gatozen estiloetatik etorrita hasieran jendeak ez du sinesten, baina oso serioa da. Dibertsioa eskaini nahi dugu, festa handi bat, baina gauzak serio eginda.

Nolako familia da zuena?

Beste asko bezala, ondo ulertzen dugu elkar eta haserretu ere egingo gara. Taldearen sorreran esan izan dugu familiaren baloreak

galduta daudela eta heldu behar zaiela.

Musika dantzagarria bada ere, indar handia dago...

Nahiz eta iraganean metala egin izan dudan, beti identifikatu naiz punkarekin; eta oinarri hori beti geratzen da hor. Talde hau xuabeagoa izan arren, beti dago ostia txarra eta hori transmititzeko gogoia. Gu ez gara indieak. Ez dugu The Smiths entzuten, nahiago ditugu Iggy Pop eta Niga Hagen.

Hitzek mehatxu ukitua dute...

Musika oso koloretsua da, baina metafora asko erabiltzen ditugu. Oraingoan ere euskal kulturako iraganeko elementuak erabili ditugu. *Takoi besoetako*, adibidez, Miranderen liburutik dator.

Jaialdiak ixten irudikatzen zaituztet. Betiko dantzalekuen aldeko kanpaina egingo duzue?

[Barre egin du] Euskal Herrian dantza egiteko nahiko xomorroak gara. Dena



dela, jaialdiak ixteko prest gaude; seguru jendeak ondo hartuko gaituela.

Diskoa, zuzenekoak... Irudia asko zaintzen duzue.

Kontzertu bat ikustera joaten naitzen taldeak guztia lantzea nahi dut eta guk horri garrantzia ematen diogu. Diskoak erosten ez diren garaian, eman zerbait berezia, baita zuzenekoetan ere. ■

